



Ezkorla Parajea. Almandozko errepidea,z/g
31796 ZIGA
Tel: 618963089/686730435
CIF: 72676377B
info@gamiokoborda.com
<http://www.gamiokoborda.com>

Alokairua: Landetxe osoa

Tokia: 8+2

Egoera: Isolatua

Maila: 3 izarretako Landetxea

ETXEAREN DESKRIBAPENA

Gamioko Borda, XVIII.mende bukaerako baserri tradizionala da, 2012.urtean inauguratua izan dena.

Guztiz isolatuta aurkitzen da eta Baztan bailarako Ziga herrian kokatua dago. Gamioko Borda, etxeko jabeek osorik berritua izan da, jatorrizko xarma guztia gordez eta teknologia berriak sartuz.

Etxeak aparteko bi etxebizitza ditu, horietako bat osorik landa turismo alokairurako egokituta dago eta bertzean berriz noizean behin familiaren senideak egon daitezke. Partetatutako espazio bat baina guztiz independentea.

Etxea, Zigatik 700metrotara dago eta bertara, ongi zaindutako eta gaztain eta haritzez inguraturiko pista batetik iristen da.

Etxea, Baztango arkitekturaren eredua da, non harri gorria eta egurra elkartzen diren, zentzuen erosotasun, atsedean eta aisirako inguru biziki aproposa sortuz.

Gela guztiak desberdinak dira eta hauetako bakoitza estilo berexiarekin apaindua izan da, xehetasun txikiak ere zainduz, zure egonaldia oraindik erosoagoa izateko.

Etxea, hiru solairutan banatzen da:

BEHEKO SOLAIRUA:

- Bezeroek liburu on batetaz gozatzeko irakurketa txokoa. Liburu mota eskaintza zabala. Gainera, zonaldeko eta inguruko informazioa, gidak eta bitxikeriak, argazki edo kontsulta liburuak eta gustu guztientzako ipuinak eskaintzen dira.
- Zonaldeko produktu tipikoen esposizio bitrina.
- Heldu nahiz txikiarentzako joku gela billarra, ping-pong eta air hockey-arekin. Haurrentzako joku eremua, haur altzari, joku eta irakurketa liburuekin.
- Guztiz hornitutako komuna.
- Garbiketako eremua, garbigailu, arropa zabaltzeko lekua, lisaburdina eta garbiketako hainbat tresna.

LEHENENGO SOLAIRUA:

- Sukalde – egongela: Sukaldea, guztiz hornituta dago, hozkailu, ontzi-garbigailu, bitrozeramika, mikrouhin, tostagailu, kafe-makina eta sukaldean aritzeko behar den guztiarekin.
- Egongela zabala, egurrezko tximinia, sofak, telebista, musika katea, DVD eta 8 lagunentzako mahai eder bat aulki eta bankuekin.
- Sukalde-egongelak kanporako irteera zuzena du, sofa, besaulki eta mahai batekin hornitutako terraza zabal batera eta bertatik, naturaren soinuetaz eta paisaiaren koloreetaz gozatu daiteke. Ikusmira ezinobeak dituen eremu irekia eta goxoa.
- Gela bikoitz bat, ohe handi batekin.
- Guztiz hornitutako komuna, ile-lehorgailuarekin.

BIGARREN SOLAIRUA:

- 3 gela bikoitz (bi, ohe indibidualekin eta bertze bat ohe handiarekin eta kanpoalderako bistak dituen balkoiarekin).
- Guztiz hornitutako komuna, ile- lehorgailuarekin.

LORATEGIA ETA BARBAKOA

- Estalitako arkupe handia, barbakoa eta muebleekin, paisaia ederraz, belardiez eta mendiez inguratuta gosaldu, bazkaldu edo afaltzen duzun bitartean deskonektatu eta erlajatzeko. Picnic-eko mahaia, banku, aulki eta mahaiarekin, ilunabar ahaztuezinak igarotzeko.
- Lorategi eremua etzaulkiekin, eguzki egunetaz gozatzeko.

OHARRAK:

- Etxe osoan WIFI sarea dohainik.
- Haurrentzako sehaska erabiltzeko aukera (doan) eta bi ohe gehigarri ere jartzeko aukera dago.
- Animaliak ez dira etxe barnean onartzen.
- Etxean ezin da erre.
- Kotxea eroso aparkatu ahal izateko, etxeak aparkaleku ederra du.
- Euskeraz hitz egiten da.
- Lorategi eta terrazako mobiliarioa eguraldiaren iragarpenen arabera aterako da.

BERTZE EZAUGARRIAK: inguru eta bista zoragarriak, kalefakzio zentrala, plasma telebista, lurreko tximinia, DVD,CD, MP3, aparkalekua, balkoiak, jardina, estalitako barbakoa, joku eremua, irakurketa txokoa, terraza ederra, wifi sarea, zaindutako dekorazioa....